

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Eskola Kontseiluaren araudia berriaren behin betiko onespena

Vitoria-Gasteizko Udalbatzak 2024ko maiatzaren 17ko ohiko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion Vitoria-Gasteizko Udaleko Eskola Kontseiluaren Araudi berriari (2024ko ekainaren 3ko 62. ALHAO). Horren inguruan ez denez inongo erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu, erabaki hori behin betikotzat jo da 2024ko uztailaren 16an, eta, indarrean jar dadin, ALHAOn argitaratu beharra dago, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko abuztuaren 22an

Bigarren alkateordea, alkatearen ausentzian
JUAN IGNACIO ARMENTIA FRUCTUOSO

Vitoria-Gasteizko Udaleko Eskola Kontseiluaren Araudia

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
ATARIKOA.....	3
I. TITULUA. Vitoria-Gasteizko Udaleko Eskola Kontseilua.....	3
I. kapitulua. Definizioa eta xedea.....	3
1. artikulua.....	3
2. artikulua.....	3
3. artikulua.....	4
4. artikulua.....	4
5. artikulua.....	4
II. kapitulua. Eskumenak.....	4
6. artikulua.....	4
7. artikulua.....	5
8. artikulua.....	5
9. artikulua.....	5
10. artikulua.....	6
III. kapitulua. Osaera eta zereginak.....	6
11. artikulua. Osaera.....	6
12. artikulua. Udaleko Eskola Kontseiluko lehendakaritza.....	6
13. artikulua. Udaleko Eskola Kontseiluko lehendakariordea.....	7
14. artikulua. Udaleko Eskola Kontseiluko kideak.....	7
15. artikulua. Udaleko Eskola Kontseiluko idazkaria eta Laguntza Teknikorako Organoa.....	9
16. artikulua. Agintaldia, eta kontseiluko kide izateari uztea.....	9
II. TITULUA. Udaleko Eskola Kontseiluaren antolamendua.....	10
17. artikulua.....	10
I. kapitulua. Udaleko Eskola Kontseiluaren Osoko Batzarra.....	10
18. artikulua. Osoko Batzarraren osaera.....	10
19. artikulua. Osoko Batzarren zereginak.....	10
II. kapitulua. Udaleko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra.....	11
20. artikulua. Batzorde Iraunkorraren osaera.....	11
21. artikulua. Batzorde Iraunkorra hautatzeko prozedura.....	11
22. artikulua. Batzorde Iraunkorraren zereginak.....	12
III. kapitulua. Udaleko Eskola Kontseiluaren lan-batzordeak.....	12
23. artikulua.....	12
24. artikulua. Lan-batzordeen osaera.....	12
25. artikulua. Lan-batzordeen zereginak.....	13
IV. kapitulua. Udaleko Eskola Kontseiluaren aurrekontua eta egoitza.....	13
26. artikulua. Udaleko Eskola Kontseiluaren aurrekontua.....	13
27. artikulua. Udaleko Eskola Kontseiluaren egoitza.....	13
XEDAPEN IRAGANKORRA.....	13
XEDAPEN GEHIGARRIA.....	13
AZKEN XEDAPENA.....	13

ATARIKOA

-I-

Parte-hartzea oinarritzko balioa da, herritar autonomo, aske, arduratsu eta konprometituak izateko, eta Vitoria-Gasteizko Udalaren konpromisoetako bat, hain zuzen ere, eskola-elkartearen parte-hartzea sustatzea da; parte-hartze horrek irisgarritasun unibertsalaren sustapena eta giza eskubideen berma izan behar ditu oinarri, eta, beraz, herritarren parte-hartzea bideratzeko eta gauzatzeko oztopo oro kentzearen alde egin behar du.

Testuinguru horretan, Vitoria-Gasteizko Udaleko Eskola Kontseilua funtsezko tresna da hiriari eragiten dieten hezkuntzako gaietan eskola-elkarteak parte hartu dezan eta, horren ondorioz, udalerrian hezkuntzaren esparruan azaleratu diren behar eta eskakizunei administrazioak ematen dizkien erantzunak optimiza daitezten.

Horregatik, Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legearen (ekainaren 28ko 3/2018 Legeak aldatua) III. tituluaren eta aplikatu beharreko gainerako araudiaren arabera, Vitoria-Gasteizko Udal Eskola Kontseilua arautzen da erregelamendu honen bidez. Udal-eremuko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren programazioan inplikaturik dauden gizarte-sektoreen partaidetza-, kontsulta- eta aholkularitza-organo gisa, eta, Araudi honen ondorioetarako, Haur Hezkuntzako lehen zikloa barne hartzen du.

-II-

Vitoria-Gasteizko Udalak tokiko araudiak egiteko ahalgoa baliatzeak Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan jasotako erregulazio onaren printzipioei jarraitzen die.

Erregelamendu honek printzipio hauek betetzen ditu: premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia Udal Eskola Kontseiluko organoen eta lanbatardeen eskumenak, osaera eta eginkizunak arautzean.

Gardentasun-printzipioari jarraikiz, herritarrek araudia egiteko prozeduran parte hartzeko bidea erabili da; zehazki, Vitoria-Gasteizko Udalaren web-atariaren bidezko kontsulta publikoaren izapidea, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan aurreikusitakoa, xedapen arautzaileak izapidetzeko.

I. TITULUA. Vitoria-Gasteizko Udaleko Eskola Kontseilua

I. kapitulua. Definizioa eta xedea

1. artikulua

Vitoria-Gasteizko Udaleko Eskola Kontseilua gure udalerrian unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren programazio orokorrean eskola-elkartea osatzen duten sektoreek parte hartzeko duten organoa da, bai eta hezkuntza-arloko esku-hartzeetarako udalaren kontsulta eta aholkularitzarako tresna ere.

2. artikulua

Udaleko Eskola Kontseiluaren bidez eskola-elkarteak duen parte-hartzeak badu helburu jakin bat: Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzaile gisa sendotzeko erakundeen eta gizarte eta hezkuntzako eragileen arteko lankidetzan aurrera egitea, eta botere publikoek Vitoria-Gasteizko herritarrek dituzten hezkuntza-premiei eraginkortasun handiagoz erantzun diezaieten ahalegintzea, aukera-berdintasuna eta emaitzen berdintasuna azpimarratuz; hiriko biztanle guztientzat hezkuntza-kalitatea, inklusioa eta ekitate, hezkidetzeta eta gizarte-koheretza sustatuko dituzten esku-hartzeak gauzatzeko dira horretarako.

3. artikulua

Vitoria-Gasteizko Udal Eskola Kontseilua hauek arautzen dute: Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legeak, aplikatzekoak diren Administrazio Zuzenbideko gainerako arauak, eta Erregelamendu honek.

4. artikulua

Araudi honen helburua da Vitoria-Gasteizko Udaleko Eskola Kontseiluaren eskumenak, osaera eta haren barneko organo eta lantaldeen funtzioak arautzea.

5. artikulua

Araudi honetan edo araudi espezifikoen aurreikusten ez diren gai guztiei dagokienez, Udalaren Osoko Batzarrek hartutako erabakiak hartuko ditu aintzat Vitoria-Gasteizko Udaleko Eskola Kontseiluak.

II. kapitulua. Eskumenak

6. artikulua

Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legearekin bat etorritik, Vitoria-Gasteizko Udal Eskola Kontseiluari nahitaez kontsulta egingo zaio honako gai hauetan:

- Udalerriaren esparruan eskolako ikaspostuak sortu, kendu eta ordeztzeko proposamenak, bai eta ikastetxeak berritzeko proposamenak ere..
- Instalazioen garbiketan, kontserbazioan eta mantentze- eta berritze-lanetan ikastetxeen funtzionamenduari eragiten dioten udal-jarduketak.
- Udal-jarduketak eta xedapenak, hezkuntzaren esparruko gai hauetan: heziketa berezia, haurren eskolatzea, helduen etengabeko prestakuntza, jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak, hezkuntza ez-arautua.
- Gizarteak eskola-elkarteari egiten dizkion prestakuntza-eskaintzak koordinatzea eta horiek barnean hartzea.
- Hezkuntza-premiak hautematea, eskaintza lurraldean banatzea, eta eskolatzeari begira ikasleak banatzeko irizpideak zehaztea.
- Osabidezko hezkuntzaren alorreko jarduera-plana.
- Jarduera-eremutzat udalerria duten edo udalaren parte-hartzea duten hezkuntzako patronatu, partzuergo eta erakundeak eratzea.
- Hezkuntzako agintariak edota udal-agintariak haren esku utzitako beste edozein gai.

7. artikulua

Udaleko Eskola Kontseiluak hezkuntzaren arloko gaiekin lotutako proposamenak egin ahal izango dizkio Vitoria-Gasteizko Udalari, baldin eta udalak badu gai horiek ebazteko eskumena.

Horrez gain, Vitoria-Gasteizko udalerriri eragiten dion hezkuntza-arloko edozein gairi buruzko proposamenak aurkeztu diezazkioke kasuan kasuko Lurraldeko Eskola Kontseiluari, baldin eta kontseilu horrek eskumena badu informazioa emateko edo proposamenak egiteko.

8. artikulua

Vitoria-Gasteizko Udaleko Eskola Kontseiluak, gainera, honako zeregin hauek izango ditu:

- a) Barne-funtzionamenduko araudia lantzea eta onartzea, eta haren araubidea erabakitzea.
- b) Udalari hezkuntza-arloan esleitutako eskumenak eraginkortasunez gauzatu daitezkeen arduratzea.
- c) Hezkuntzaren arloan Udalaren Osoko Batzarrean onartutako ekintzak betetzen diren aztertzea eta jarraipena egitea.
- d) Gasteiz Hiri Hezitzaile gisa sendotzeko jarduketak sustatzea.
- e) Udalaren hezkuntza-politika eta esparru horretako planak aztertzea, proposatzea eta horien jarraipena egitea.
- f) Udalaren Haur Eskoletako onarpen-prozesua eta matrikulazio-araudia aztertzea eta proposamenak egitea.
- g) Udalaren Haur Eskolen funtzionamendua aztertzea eta proposamenak egitea.
- h) Hezkuntza-ekintzak proposatzea, inplikaturako beste udal-plan batzuen esparruan garatzeko.
- i) Hiriko Gizarte Kontseiluarekin eta hiriko beste partaidetza-kontseilu batzuekin lankidetzan aritzea.
- j) Hiriko ikastetxeetako eskola-kontseiluekin informazio eta esperientzien trukea ahalbidetuko duen sare baten osaketa sustatzea.
- k) Udaleko Hezkuntza Zerbitzuari aholku ematea, udaleko hezkuntza-politikaren esparruetan.
- l) Udaleko Eskola Kontseiluaren jarduerari buruzko urteko memoria egitea.
- m) Udaleko Eskola Kontseiluaren jardueraren berri emateko irizpideak ezartzea.
- n) Bere eskumenak eta zereginak betetzeko Udaleko Eskola Kontseiluak behar duen urteko aurrekonturako proposamena egitea.
- o) Vitoria-Gasteizko udalerrian hezkuntzak duen egoerari buruzko urteko txostena egitea.
- p) Udala titularra den eskola-eraikinen mantentze eta kontserbazio-egoerari buruzko urteko txostena egitea, udal-aurrekontuaren proiektua aurkeztu aurretik, udalari eta dagokion lurraldeko eskola-kontseiluari helarazteko.
- q) Hezkuntzaren esparruko erakunde, elkarte eta organo eskudunei edo arlo horretako arduradunei nahiz udalerriko eskola-elkarteko eragileei begira azterketak egiteko, informazioa eskatzeko edo neurriak hartzeko bestelako edozein zeregin.

9. artikulua

Kontseiluak udaleko gobernu-organoei egiten dizkien proposamenek gomendio-izaera izango dute.

Egindako proposamenak nahiz udaleko gobernu-organoei edo beste organo batzuek emandako erantzunak behar bezala ezagutaraziko dira.

10. artikulua

Udaleko Eskola Kontseiluak beste instituzio edo erakunde batzuekin, unibertsitateekin edo pertsonekin hitzarmenak egiteko proposamenak egin ditzake, hezkuntzaren arloan azterlanak egiteko.

III. kapitulua. Osaera eta zereginak

11. artikulua. Osaera

Vitoria-Gasteizko Udaleko Eskola Kontseilua lehendakariak, lehendakariordeak eta kontseiluko kideek osatuko dute. Udaleko Eskola Kontseiluak idazkaria izango du, Udaleko Hezkuntza Zerbitzuko pertsona baten ardurapean.

Udaleko Eskola Kontseilua 31 kidek osatuko dute gehienez ere. Horrez gain, modu iraunkorrean gonbidatzen diren eta araudian adierazten diren pertsonak ere parte hartu ahal izango dute osoko bileretan.

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, 3.10 artikuluan xedatzen duenaren arabera arautuko da kontseiluaren osaeraren ordezkari-tza orekatua, sexuaren arabera, bai titularrei dagokienez eta bai ordezkoei dagokienez.

12. artikulua. Udaleko Eskola Kontseiluko lehendakaritza

1. Vitoria-Gasteizko Udaleko Eskola Kontseiluko lehendakaria hiriko alkatea izango da, edo hark eskuordetzen duen zinegotzia.
2. Vitoria-Gasteizko Udaleko Eskola Kontseiluko lehendakariari zeregin hauek dagozkio:
 - a) Kontseiluaren ordezkari izatea.
 - b) Ohiko eta ezohiko bilkuretarako deialdia egitea eta gai-zerrenda zehaztea, kontuan hartuta, hala dagokionean, kide diren gainerako pertsonen eskariak, betiere behar besteko aurrerapenez egin badira.
 - c) Bileretako buru izatea, eztabaidak moderatzea eta, horretarako arrazoiak daudenean, bilkurak bertan behera uztea.
 - d) Berdinketak ebatzea bere botoaren bidez, erabakiak hartu ahal izateko.
 - e) Legeak betetzen direla ziurtatzea..
 - f) Kontseiluak hartutako erabakien akta eta ziurtagiriei oniritzia ematea.
 - g) Kontseiluaren idazkaritzaz arduratuko den pertsona izendatzea, Hezkuntza Zerbitzuko buruaren proposamenari jarraituz.
 - h) Kontseiluari egiten dioten ekarpen berezia aintzat hartuta garrantzitsutzat jotzen diren eta araudi honetan ageri diren pertsonak gonbidatzea kontseiluaren bilkuretara, modu iraunkorrean.
 - i) Duten gaitasun teknikoagatik kontseiluaren zereginak hobeto garatzeko beharrezko txostenak egin eta aurkeztu ditzaketen pertsonak gonbidatzea kontseiluaren bilkuretara, aldi-aldian.

- j) Kontseilua osatzen duten pertsoneri edota modu iraunkor batean kontseiluaren bilkuretara gonbidatzen dituzten pertsoneri hango lantaldeek garatzen dituzten jarduera eta lanen berri ematea, erregulartasunez.
- k) Kontseiluaren Osoko Batzarraren eta Batzorde Iraunkorraren erabakiak bete daitezzen arduratzea.
- l) Lehendakari izateak berez dakartzan bestelako zereginak garatzea.

13. artikulua. Udaleko Eskola Kontseiluko lehendakariordea

1. Lehendakariordea Udaleko Eskola Kontseiluaren Osoko Batzarrak izendatuko du, lehendakari-tzaren proposamenez, kontseiluko kideen artetik, udaleko talde politikoen ordezkariak kanpoan utzita.
2. Lehendakariordeak lehendakaria ordezkatu du kargua hutsik denean, hura kanpoan denean, gaixorik dagoenean edo legezko bestelako kasuetan.
3. Lehendakariordeak Udaleko Eskola Kontseilua ordezkatu du hiriko Gizarte Kontseiluan.
4. Lehendakariak lehendakariordeari bere eginkizunak eskuordetzen badizkio, horren berri emango die Osoko Batzarrari eta kontseiluko Batzorde Iraunkorrari.

14. artikulua. Udaleko Eskola Kontseiluko kideak

1. Honako kide hauek izango ditu Udaleko Eskola Kontseiluak:
 - a. Korporazioan ordezkari-tza handiena duten talde politikokoetako bakoitzak izendatutako zinegotzi bat; lau izango dira gehienez.
 - b. Hezitzaileen eta irakasleen zazpi ordezkari, esparru hauetakoak:
 - 0 urtetik 18ra bitarteko ikasleei zuzendutako ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxe publikoetako hezitzaile eta irakasleen bost ordezkari, haien sindikatuek izendatutakoak.
 - 0 urtetik 18ra bitarteko ikasleei zuzendutako ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxe pribatu- eta itunpeko ikastetxeetako hezitzaile eta irakasleen bi ordezkari, haien sindikatuek izendatutakoak.
 - c. Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako ikasleen familietako zazpi ordezkari, ikasleen gurasoen elkarten federazioek izendatutakoak. Horietatik, ikastetxe publikoetako Guraso Elkarten Federazioak izendatuko ditu bost, eta bi, ikastetxe pribatu eta itunpekoetako Guraso Elkarten Federazioak.
 - d. Ikasleen bost ordezkari, haien erakundeek izendatutakoak.
 - e. Ikastetxe publikoetako administrazio eta zerbitzu- eta langileen bi ordezkari, haien sindikatuek izendatutakoak. Horietako bat udal-administrazioa izango da, eta bestea, berriz, hezkuntza-administrazioa.
 - f. Udaleko Haur Eskoletako zuzendari bat, eskola horietako zuzendariak izendatutakoak.
 - g. Ikastetxe publikoetako zuzendari bi ordezkari, horien erakundeek izendatutakoak.
 - h. Ikastetxe pribatu eta itunpekoen titular diren pertsonen bi ordezkari, horien erakundeek izendatutakoak.
2. Kontseiluko kideak izendatzeko eskumena duten organoek hautatuko dituzte beren ordezkariak, bai titularrak eta bai ordezkoak.
3. Hezkuntza-administrazioak, edozein unetan, haren ordezkari izango den pertsona bat izenda dezake, eta hitza izango du pertsona horrek, baina ez botorik.

4. Gainera, honako pertsona hauek ere gonbidatuko dira Udaleko Eskola Kontseiluaren Osoko Batzarrera eta, hala dagokionean, lan-batzordeetara, modu iraunkorrean, hitza izanik baina botorik gabe:
 - a) Haurreskolak Partzuergogko gerentea, edo hark eskuordetutako pertsona.
 - b) Arabako Campuseko errektoreordea, edo hark eskuordetutako pertsona.
 - c) Hezkuntzaren arloan erantzukizuna duen Udal Saileko zuzendaria.
 - d) Udaleko Hezkuntza Zerbitzuko burua.
 - e) Udaleko Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren burua, edo hark eskuordetutako pertsona.
 - f) Udaleko Berdintasun Zerbitzuaren burua, edo hark eskuordetutako pertsona.
5. Era berean, Udaleko Eskola Kontseiluaren Osoko Batzarrera eta, hala dagokionean, lan-batzordeetara gonbida daitezke, unean-unean, hitzarekin eta botorik gabe, dituzten gaitasun teknikoei esker kontseiluaren zereginak hobeto garatu ahal izateko beharrezkoak diren txostenak aurkeztu ditzaketen pertsonak, edo kontseiluari egin diezaioketen ekarpenagatik egokitzat jotzen diren pertsonak.
6. 14.1 artikulua b), c), d), e), f), g), eta h) idatz-zatietan kontseiluko kide gisa aipatu diren pertsonak udalerriko ikastetxe batean aritu behar dute.
7. 14.1 artikulua b) eta e) idatz-zatietan aipatutako ordezkariak izendatzerakoan, Udaleko Eskola Kontseilua eratu edo berriro aurretik udalean edo hirian egin diren hauteskunde sindikaletan lortutako emaitzak hartuko dira kontuan.
8. Ahalegin berezia egingo da b) eta c) idatz-zatietan aipatzen diren ordezkariak hezkuntza maila guztiak barnean hartu ditzaten; titulartasun publikoko haur-eskolak ere ordezkariak horren barnean sartzen direla azpimarratu behar da.
9. Kontseiluko lehendakariak ordezkariak izendatzeko epea zehaztuko du, eta 14.1 artikuluan aipatzen den kideen multzo bakoitzarekin lotuta dauden erakunde, elkarte eta taldeei jakinaraziko die beren ordezkariak izendatzeko duten epe hori.
10. Honako zeregin hauek dagozkie kontseiluko kideei:
 - a) Gutxienez zazpi egun natural lehenagoko epean, bilerarako deia jasotzea, bilerako gai-zerrenda eta guzti. Gai-zerrendan agertzen diren gaiak buruzko informazioa kontseiluko kideen eskura egongo da epe horretan.
 - b) Bilkuretako eztabaidetan parte hartzea.
 - c) Botoa emateko eskubidea erabiltzea eta beren boto partikularra ematea; beren botoaren esanahia adieraztea, eta hura justifikatzen duten arrazoiak azaltzea.
 - d) Proposamenak egitea, informazioa eskatzea, eta txosten eta irizpenak egiten parte hartzea.
 - e) Galde-eskeak egitea.
 - f) Esleututako zereginak betetzeko beharrezkoa duten informazioa lortzea.
 - g) Beren izaerari dagozkien gainerako eginkizun guztiak.
11. Modu iraunkorrean gonbidatzen diren eta araudi honetan zehaztu diren pertsonen ere aplikatuko zaizkie eginkizun horiek, c) puntuko zeregina salbuespentzat hartuta.
12. Kontseiluko kideek ezin izango dute beren gain hartu kontseiluaren ordezkariak-eginkizunik, lehendakariak funtzio hori eman ez badie; eta, funtzio hori beren gain izateko, kontseiluaren Osoko Batzarrak kasu zehatz bakoitzerako hartutako baliozko erabakia izan beharko da.

13. Kontseiluko kideen lekua haien ordezkoez hartuko dute kargua hutsik bada, titularra kanpoan bada, gaixorik bada edo legezko beste kasuren bat gertatzen bada.
14. Udaleko Eskola Kontseiluko kideek ezin izango dituzte beren eginkizunak bete, interes-gatazka sortzen denean.

15. artikulua. Udaleko Eskola Kontseiluko idazkaria eta Laguntza Teknikorako Organoa

1. Udaleko Eskola Kontseiluak laguntza teknikorako organo bat izango du, eta Udaleko Hezkuntza Zerbitzuaren buruzagitzak eta zerbitzu horretako hiru teknikariek osatuko dute organo hori; ahalegina egingo da pertsona horietako batek, gutxienez, genero-berdintasunaren arloko prestakuntza izan dezan. Haren zereginak oro har kontseiluari laguntza tekniko eta administratiboa ematen dion organo batenak izango dira.
2. Laguntza Teknikorako Organoan parte hartzen duten Hezkuntza Zerbitzuko teknikariek dagoeneko kontseiluaren idazkaritza, eta kontseiluko lehendakariak izendatuko du, Udaleko Hezkuntza Zerbitzuko Buruzagitzaren proposamenez.
3. Kontseiluaren funtzionamendurako behar den laguntza tekniko emango du idazkariak, 1. artikuluan aipatu den Laguntza Teknikorako Organoarekin lankidetzan.
4. Honako zeregin hauek dagozkio idazkaritzari:
 - a) Kontseiluaren Osoko Batzarraren, Batzorde Iraunkorren eta kontseiluaren lan-batzordeen bilkuretara joatea, hitza izanik baina botorik gabe.
 - b) Kontseiluko organoen bilkuretarako deialdia egitea, kontseiluko lehendakariaren aginduz, eta kontseiluko kide diren pertsonen eta gonbidatuei dei egitea.
 - c) Kontseiluko kide diren pertsonen eta gonbidatutakoen komunikazio-egintzak jasotzea, jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak nahiz ezagutu beharreko beste edozein idazki.
 - d) Kontseiluko kideak eta modu iraunkorrean gonbidatuko diren pertsonak izendatzeko eta, hala dagokionean, horiek ordezkatzeko behar diren dokumentuak izapidetzea.
 - e) Gaiak bideratzeko prestatzea, eta bilkuretarako aktak idaztea eta onartzea.
 - f) Onartutako kontsulta, irizpen eta erabakien ziurtagiriak ematea.
 - g) Udaleko Eskola Kontseiluaren jardueren memoriarako proposamena lantzea; kontseiluaren Osoko Batzarrak onartu beharko du memoria hori.
 - h) Udaleko Eskola Kontseiluaren dokumentazioa zaintzea.
 - i) Idazkari izaerari dagozkion gainerako eginkizun guztiak.
5. Artikulu honetako 1. puntuan aipatzen den Laguntza Teknikorako organoko langileak hartuko du kontseiluko idazkariaren lekua, baldin eta kargua hutsik bada, kanpoan bada, gaixo bada edo legezko beste arrazoiren bat sortzen bada.

16. artikulua. Agintaldia, eta kontseiluko kide izateari uztea

1. Udaleko Eskola Kontseiluko kideen agintaldiak lau urte iraungo du. Vitoria-Gasteizko Udaleko korporazio berria osatzen den bakoitzean berrituko da kontseilua.
2. Era berean, modu iraunkorrean gonbidatzen diren eta araudian zehazten diren pertsonen parte-hartze aldia aurreko puntuan adierazitakoa izango da.
3. Udaleko Eskola Kontseilua osatzen duten pertsonen kide izateari utziko diote arrazoi hauetakoren bat sortzen bada:

- Kontseilua berritzea. Udaleko Eskola Kontseilua berritzeak, automatikoki, lehendakariaren eta kontseiluko kideen kargu-uztea ekarriko du. Ordezkatzen duten organoak berriro proposa ditzake pertsona horiek.
- Uko egitea. Uko-egite hori idatziz aurkeztuko zaio kontseiluko lehendakariari, kontseiluko idazkariaren bidez.
- Kolektibo edo organoaren ordezkaritza izateari uztea. Kontseiluko kide bat organo baten ordezkaritza gisa dagoenean kontseiluan, eta organo horretako kide izateari uzten dionean, horren berri emango dio kontseiluko lehendakariari, kontseiluko idazkariaren bidez.
- Kargu publikoetan aritzeko gaitasungabetzea.
- Askotan falta izatea. Kontseiluko kide bat etengabe falta izaten bada, pertsona horrek kontseiluko kide izatera erabaki dezake kontseiluaren Osoko Batzarra.
- Ezintasun iraunkorra edo heriotza.
- Izendatzeko zio izan zen beste edozein baldintza jada ez betetzea.

Artikulu honetan jasotzen diren egoeretan, eta a) puntua salbuespentzat hartuta, kontseiluaren idazkariak dagokion organoari jakinaraziko dio, eta ordezkoak parte hartu dezan eskaera egingo du, hutsik geratu den kargu hori betetzeko.

- Kontseiluko kideen izendapenak eta kargu-uzteak jakitera emango dira.

II. TITULUA. Udaleko Eskola Kontseiluaren antolamendua

17. artikulua

Udaleko Eskola Kontseilua Osoko Batzarra eta Batzorde Iraunkorrak osatzen dute, bere erregimenari dagokionez. Horrez gain, lan-batzordeak ere sortu ahal izango dira, titulu honetako III. Kapituluan xedatzen denaren ildotik.

I. kapitulua. Udaleko Eskola Kontseiluaren Osoko Batzarra

18. artikulua. Osoko Batzarraren osaera

Osoko Batzarra da kontseiluaren organo erabakitzailea, eta lehendakariak, lehendakariordeak eta kontseiluko kideek osatzen dute.

Kontseiluko idazkariak parte hartuko du kontseiluaren Osoko Batzarraren bilkuretan.

Honako araudi honetan adierazten diren eta egonkortasunez gonbidatzen diren pertsonak ere parte hartuko dute bilkuran, bai eta uanean-uean gonbida daitezkeen pertsonak ere.

19. artikulua. Osoko Batzarren zereginak

Honako zeregin hauek dagozkio Udaleko Eskola Kontseiluaren Osoko Batzarrari:

- Kontseiluko lehendakariordea izendatzea, lehendakariak egindako proposamenari jarraiki.

- b) Batzorde Iraunkorra osatuko duten kontseiluko kideak izendatzea, lehendakariak egindako proposamenari jarraiki.
- c) Udaleko Eskola Kontseiluaren funtzionamendurako barne-araudia egitea eta onartzea.
- d) Lan-batzordeak eta batzorde horietako kideak proposatzea eta horien osaketa onartzea.
- e) Beste erakunde batzuetan Udaleko Eskola Kontseilua ordezkatzeko duten kontseiluko kideak aukeratzea, lehendakariaren proposamenari jarraiki, lehendakariak ordezkaritza beste kide batzuen gain uzten duenean.
- f) Araudi honetako 7, 8 eta 9. artikuluetan zehazten diren txosten eta irizpenei buruz eztabaidatzea eta horiek onartzea.
- g) Kontseiluaren jardueri buruzko urteko memoria onartzea.
- h) Udalerrian hezkuntza duen egoerari buruzko txostena ezagutzea eta txosten horri bere ekarpena egitea.
- i) Kontseiluaren aurrekontu-proposamena onartzea.
- j) Batzorde Iraunkorrek ikasturte bakoitzerako proposatutako jarduketan programa onartzea.

II. kapitulua. Udaleko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra

20. artikulua. Batzorde Iraunkorraren osaera

1. Kide hauek osatuko dute Batzorde Iraunkorra: lehendakariak, lehendakariordeak, hezitzaileen edo irakasleen ordezkari batek, familien ordezkari batek, ikasleen ordezkari batek, ikastetxe publikoetako zuzendarien ordezkari batek, eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari batek.
2. Kontseiluko lehendakaria izango da Batzorde Iraunkorraren buru.
3. Batzorde Iraunkorreko idazkaria Udaleko Eskola Kontseiluko idazkaria izango da.

21. artikulua. Batzorde Iraunkorra hautatzeko prozedura

1. Udaleko Eskola Kontseiluko sektore bakoitzak bere ordezkariak eta horien ordezkoak aukeratu ditu Batzorde Iraunkorrerako.
2. Izendatutako pertsonak eta horien ordezkoak jasotzen dituen proposamena idatziz helaraziko zaio lehendakariari, kontseiluko idazkariaren bidez.
3. Sektoreek aukeratutako pertsonak eta horien ordezkoak izendatuko ditu kontseiluaren Osoko Batzarrek, Batzorde Iraunkorra osatzeko.
4. Ordezkariak eta horien ordezkoak izendatzeko proposamenean ados jartzerik lortzen ez bada, aukeraketa-prozesua isilpeko bozketa bidez egingo da, sektore bakoitza osatzen duten pertsonen artean. Berdinketa gertatzen bada, bigarren bozketa egingo da. Eta berriro berdinketa gertatuz gero, kontseiluko lehendakariak izendatuko ditu.
5. Justifikatutako arrazoiengatik Batzorde Iraunkorreko titularrak falta badira, ordezkoek hartuko dute haien lekua batzordean. Horren berri eman behar zaio aurrez lehendakariari, kontseiluko idazkariaren bidez.

6. Batzorde Iraunkorrak bere gai-zerrendan lan-batzorde baten aztergaia den gai batekin lotutako auziak landu behar dituzenean, lan-batzorde horretako kideak gonbida daitezke; hitza izango dute, baina botorik ez.

22. artikulua. Batzorde Iraunkorraren zereginak.

Zeregin hauek dagozkio Batzorde Iraunkorrari:

- a) Kontseiluaren Osoko Batzarraren bilkuren egutegia planifikatzea eta gai-zerrendarako gaiak proposatzea.
- b) Kontseiluaren Osoko Batzarrean eztabaidatuko diren gaiak, txostenak, proposamenak eta irizpenak prestatzea.
- c) Kontseiluaren bilkuren arteko epean erabakiak hartzea, aparteko bilkura egitea eskatzen ez duten gaiak sortzen direnean.
- d) Lan-batzordeak sortzea proposatzea kontseiluaren Osoko Batzarrari.
- e) Halako egoerak sortzen direnean, duten gaitasun teknikoagatik edo organo honi egin diezaioketen ekarpenagatik zenbait pertsona une jakin horretan kontseiluan parte hartzea gonbidatzea komeni den erabakitzea; pertsona horiek hitza izango lukete, baina ez botorik.
- f) Batzorde Iraunkorrak landutako gaien eta hartutako erabakien berri eman beharko dio kontseiluaren Osoko Batzarrari.
- g) Kontseiluaren Osoko Batzarrak haren gain uzten dituen gainerako zereginak.

III. kapitulua. Udaleko Eskola Kontseiluaren lan-batzordeak

23. artikulua

Kontseiluaren eskumenarekin edo zereginekin lotutako gaiak aztertzeko, lan-batzordeak eratu ahal izango dira.

Lehendakariaren edo Batzorde Iraunkorraren ekimenez nahiz kontseilua osatzen duten kideen laurdenak hala eskatuta osatuko dira lan-batzordeak.

24. artikulua. Lan-batzordeen osaera

Lan-batzordeak lehendakariak eta kontseiluko zenbait kidek osatuko dituzte; kontseiluko kideen kopurua aldatu egingo da, landuko den gaiaren arabera. Lan-batzorde bat abiarazteko, kontseiluko hiru kidek hartu behar dute parte, gutxienez. Kontseiluko idazkariak parte hartuko du lan-batzordeen bileretan.

1. Lehendakariak kontseiluko kide den eta dagokion lan-batzordean parte hartzen duen beste pertsona bati eskuordetu diezazkioke bere zereginak.
2. Horrez gain, kontseiluko idazkariak Udaleko Eskola Kontseiluko Laguntza Teknikorako Organoko pertsona bati eskuordetu diezazkioke bere zereginak.
3. Lan-batzordeek udaleko teknikarien zein landu nahi den gaiari buruzko ezagutza espezifikoak dituzten beste pertsona batzuen partaidetza, aholkua eta laguntza izan ditzakete.

25. artikulua. Lan-batzordeen zereginak

1. Esparru zehatz batzuk aztertzea eta Udaleko Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorrerako eta Osoko Batzarrerako proposamenak eta txostenak lantzea dagozkie lan-batzordeei.
2. Kontseiluaren Osoko Batzarrarentzat, lan-batzordeek aurkeztutako txostenek ez dute izaera loteslerik, eta, beraz, horiek onartu, aldatu edo baztertu ahal izango ditu.

IV. kapitulua. Udaleko Eskola Kontseiluaren aurrekontua eta egoitza**26. artikulua. Udaleko Eskola Kontseiluaren aurrekontua**

Udalaren urteko aurrekontuan, Vitoria-Gasteizko Udaleko Eskola Kontseiluak dituen eskumen eta zereginen erantzuteko kontseilu horren funtzionamendura zer partida zuzentzen den zehaztuko da.

27. artikulua. Udaleko Eskola Kontseiluaren egoitza

1. Udaleko Eskola Kontseiluaren egoitza Udaleko Hezkuntza Zerbitzuaren egoitza izango da; dena den, Osoko Batzarraren, Batzorde Iraunkorraren eta lan-batzordeen bilkurak bestelako udal-aretoetan ere egin ahal izango dira. Bilera egiteko deialdi bakoitzean zehaztuko da zer instalaziotan egingo den.
2. Udaleko Eskola Kontseiluak bere helbide elektronikoa izango du berariaz.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Udaleko Eskola Kontseiluko Laguntza Teknikoko Organoari dagokio Udaleko Eskola Kontseilua osatu eta abian jartzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, Vitoria-Gasteizko Udaleko korporazio berria bere karguaz jabetzen denetik hasita sei hilabeteko epean.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Udalbatzari dagokio araudi hau (osorik nahiz zati bat) aldatzea, Tokiko Gobernu Batzarrak edo Udaleko Eskola Kontseiluak hala proposatzen badiote.

AZKEN XEDAPENA

Honako araudi honek indargabe uzten du behin-behineko izaeraz Vitoria-Gasteizko Udalbatzak ohiko bilkuran 2012ko otsailaren 24an onartu zuen Vitoria-Gasteizko Udaleko Eskola Kontseiluaren Araudia; behin betiko onartutzat jo zen araudi hori 2012ko maiatzaren 25ean, erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ez zenez.

Honako araudi hau Vitoria-Gasteizko Udalbatzak behin betiko ematen duen onarpena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Udalbatzan behin-behineko onespena ALHAOn argitaratu ondoren erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da ordura arte behin-behinekoa zen onespena.